

hondo-hondotik

Pavel Viñas

(Eudimako koordinatzailea)

Euskal Herria militarizatuta?

Euskal Herria militarizatuta dagoen edo ez aztertzen hasi aurretik, ezinbestekoa da zenbait kontzepturen inguruko azalpen labur batzuk ematea, beti ere hariari heltzerakoan zalantzarik egon ez dadin. Herri bat militarizatua dagoela esateak ideia asko dakarzkigu burura, nahiz eta honen benetako esanahia zein den ez dugun oso argi.

Militarizazio egoerak oso zehatzak dira eta gune geografiko konkretuetan izaten dira; aldiz, militarismoak ez du gune geografiko konkreturik behar. Militarizazioa, gune geografiko konkretu batean gertatzen den despliege militar iraunkorra da; horrelako egoeren helburua errepresio eta kontrol jarduerak burutzeko da. Militarismoa, berriz, kontzeptu zabalagoa da; izaera militarreko eraentzen aldekoak diren pertsona, gune eta egiturei dagokie. Esan daiteke ez direla bata bestearen menpeko, bat izan dadin ez da beharrezkoa bestearen existentzia; militarra, kontserbadorea edo izaera militarra duen eraentza konkretu baten sustatzailea izan zaitezke eta, hala ere, desmilitarizazioaren alde egon.

Azalpen hauek eginda, sar gaitezen harira: Euskal Herria militarizatuta dago? Galdera horri erantzuteko, Euskal Herriak duen egoeraren erradiografia txiki bat egingo dut:

—Espainiar armadak Euskal Herrian dituen gorputz guztiak kontuan hartuta, unitateen kopurua 4.000 ingurukoa da. Horretaz gain, gure herritik kanpora baina mugakide ditugun zenbait herritan gorputz militar bereziak daude (Logroño, Burgosen...) honantz begira. Instalazioei dagokienez, 14 guneetan banatzen dituzte beraien kuartel, gobernu militar eta beste motetako eraikinak (tiro zelaiak, hipikak, maniobra guneak, lurteratze pistak...).

—Guardia Zibilari dagokionez, 6.500 unitate inguru daude gure lurraldean gorputz eta brigadetan banatuak. Instalazioei dagokienez, 84 kuartel dituzte, eta kopuru horri aduanetan dituzten 6 eraikuntzak gehitu behar zaizkie.

—Espainiako Polizia Nazionalaren inguruan dauden datuak zalantzarik dira; nahiz eta ofizialki 2.560 unitate daudela suposatzen den, Espainiar gobernuburuak 2.774 daudela baieztatu izan du.

—Militar eta polizia frantsesei dagokienez, 2.500 unitate inguru daude iparraldean.

Guztiak batuz gero, 16.000 unitate militar eta polizialez hitz egiten ari gara. Horiek guztiak indar armatu atzerriarrak dira; haiei erkidego autonomoko polizia (Ertzaintza) gehituz gero, 23.500 unitate inguruz hitz egingo genuke.

Beldurgarriak diren datu batzuen aurrean gaude, biztanleko unitate militar eta polizial gehien duen europar nazioa gara; Europako batez bestekoa bikoiztu egiten dute datu hauek, 1.000 biztanleko 10,10 poliziala ditugu. Hasieran egin ditugun azalpenak Euskal Herriko egoeran txertatzen baditugu, berehala ohar-tuko gara herri militarizatu baten eredu garbia garena. Militarizatuak gaudela esaterakoan, ez dut soilik unitateen kopurua hartzen kontuan: haiek dituzten funtzio, helburu eta eguneroko jarduerak ere kontuan hartzen ditut. Euskal Herrian dugun egoera politikoa berezia aitzakiatzat hartuta, mota guztietako bortxaketa eta gehiegikeria jasaten ditugu, bide ertzetik kontrol polizialak (3.000 kontrol inguru urtero), mota guztietako baliabideen erabilera kontrol sozial eta mugimendu askatasuna baldintzatzeko, adierazpen askatasunaren murrizketak, erakunde sozial eta politikoen aurkako erasoak, torturak... eguneroko ogia dira Euskal Herrian. Horri guztiari, egoera hau mantentzeko dakarren gastu ekonomikoa gehitu

beharko genioke; zerbitzu publiko eta funtzio sozialak orduan eta urriagoak dira, eta funtzio polizial eta militarretarako aurrekontuak, aldiz, etengabe handituz doaz.

Datu guztiok gutxituz joan ordez handituz doaz pixkanaka; 2001. urtean 1.150 guardia zibil berri gehitu zitzaiz-

kien dagoeneko zeudenei. Gainera, defentsa ministerioak 5. zonaldearen egoitza Logroñotik Gasteiza eraman nahi du, eta horrek unitateen ugaltzea eta instalazioen zabaltzea ekarriko du. Barakaldon ugaltze horren lehenengo froga dugu: bertan superkuartela eraikitzeo aurrekontuak onartu dira, eta las-ter hasiko dira exekuzio-arekin. Datu hauei gehitu beharrekoak dira Leitza eta Lekunberriko kasuak. Leitzan, legez iraungita dagoen kontratu zahar bat indarrez balioztatu nahian dabil-tza, bertan kuartela mantentzeko asmoz; erabile-ra bera eman nahi diote berez funtzio kultural eta sozialetara zuzendu beharko litzatekeen Maxurranea baserriari. Lekunberrin, berriz, ezohikoa den baliabide legal bat erabili du espainiar gobernuak, bertan kuartela eraiki ahal izateko. Kasu horietan guztietan herriaren hitza eta borondatea ez dira kontuan hartu inongo momentutan.

Beste kontu garrantzitsu bat lurzoru eta eraikuntzena da. Espainiar armadak, Guardia Zibila kontuan hartu gabe, 4.000 hektarea (4.000 futbol zelaien pareko) inguru ditu bere eskuetan; horiei Guardia Zibilak eta polizia espainiarrak dituztenak gehituz gero, izugarriak diren datuak lortuko genituzke. Lurzoru eta eraikuntza horien erabilera funtzio polizial eta militarretara mugatuta dago, nahiz eta herri lurak diren. Gune horietan tiro zelaiak, maniobra guneak, lurreratze pistak, kuartelak, bulegoak... dituzte. Gaur egun Euskal Herrian dugun espekulazio eta etxebizitza beharrei aurre egiteko gune bikainak lirerateke, bai eta beste mota batzuetako funtzio sozialak burutzeko ere. Eredu horiekin negozio itzela ari dira egiten; eskuratzea oso merkea edo doakoa izanda, udalerriri diru kopuru izugarriak ordaintzera behartuak daude, lurzoru eta eraikin horiek errekuperatu nahi badituzte; adibide gisara Irungo kuartelaren kasua dugu, non dagoeneko 932.880 euro ordaindu dituen udalak kuartelaren zati bat errekuperatzeko eta beste 1.204.188 euro eskatzen dizkion gobernu espainiarrak osotasunean eskuratzeko; esan beharra

dago zati horietako bat, 1.204.188 euro balio dituen, dohainik eskuratu zuela armada espainiarrak. Beste zenbait tokitan okupazioari ekin diote, Gernikako Astra armagintza fabrikari egin duten bezala: ustiaketa industrialak bukatu bezain laster, okupatu egin zuten.

Hori guztia ikusiz gero, argi geratzen da gure herriak duen egoera ez dela txantxetako. Euskal Herrian lanerako gune zurrak sortu nahi baditugu, demokraziak tokia izatea nahi badugu, elkarrizketari lekua utzi nahi badugu, euskal gizarteak hitza edukiko badu, ezinbestekoa da mili-

tarizaziozko egoera hau gaintzea. Hori guztia lortu nahi badugu, nahitaezkoa da indar polizial eta militar atzerriarrak gure herritik bidaltzea; jakina denez, hori lortu nahi badugu, beharrezkoa izango da guztion parte-hartzea. Eudima osatzen dugun udaletako ordezkariok honen guztiaren inguruko gogoeta egingo dugu. Herriak duen errealitatearen jabe gara. Demokratikoki hautatutako ordezkariak izanda, herriak dituen kezka eta nahiak geure egin behar ditugu; militarizazio egoera honi aurre egitea ez da gutxiagorako. Hala ere, argi dugu hau ez dela instituzio mailan soilik landu beharreko borroka; herriak ere heldu beharko dio, behin betikoz egoera hau gaintu nahi badugu.

Artikulu honi izen ematen dion galdera erantzunda geratu dela uste dut. Uste dut, era berean, Euskal Herrian dugun militarizazio egoeraren inguruko hainbat daturen jabe egin zaretela. Azkenik, artikulu honen helburu nagusia beteta geratu den ustetan bukatu nahi nuke; alegia, dugun militarizazio egoeraz herritarrak pixkanaka kontzientziazten doazela eta honi aurre egiteko grina dagoeneko pizten hasia dela. Hala bada, aurre egiten hasteko aukera ederra dugu datorren urriaren 12an Donostian egingo den manifestazio nazionalan, non *Utzi bakean Euskal Herria, indar militarizatzaileak kanpora* lelopean, herri plataforma eta nazio mailako talde eta kolektibo ugari bilduko garen.

MILITARIZAZIOA

Biztanleko unitate militar eta polizial gehien duen Europako nazioa gara; 1.000 biztanleko 10,10 poliziala ditugu

DESMILITARIZAZIOA

Demokraziak tokia izatea nahi badugu, euskal gizarteak hitza edukiko badu, ezinbestekoa da egoera hau gaintzea

esaldiak

«Gaur egungo euskal gizartean ere, badago ikastolak desagertzea begi onez ikusiko lukeen jendea»

ANTONIO CAMPOS

(Ikastolen Elkartearen presidentea)

«Multinazionalen inguruan oso eztabaida sakona egin beharko litzateke, baina gu piratak bagara, haiek korsarioak»

FERMIN MUGURUZA

(Kantaria)

«Jokoan dagoena duintasuna gordetzea dela iruditzen zait... zibilizazioaren amaierarantz goaz»

MANU CHAO

(Kantaria)

«Krisiarekin diru laguntza eskasia izan arren, Argentinan gogo handia dute zineman berrikuntzak azaltzeko»

DIEGO LERMAN

(Zinemagilea)